

Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Oinarrizko kontzeptuak.

Esan dezakegu gure gizartean izan den aldaketa handienetako bat emakumeek berdintasun formalak eskuratzea izan dela. Zeuden oztopoak desagertuz joan dira, emakume askoren eta gizon batzuen borrokari eta konpromisoari esker, berdintasuna giza eskubideen defentsaren erdigunean jartzeko prest. Baina ezin dugu "berdintasunaren ameskeria" batek garaitu eta gaur egun oraindik dauden desberdintasunak ukatu.

#BERDINTASUNA, GENEROA ETA DESKRIMINAZIOA



Oinarrizko
Prestakuntza

MATRIKULA

Ikastaroaren data
OTSAILAREN 16TIK MARTXOAREN 22RA

Matrikulazioaren data
HASIERA: URTARRILAK 12
BUKAERA: OTSAILAK 13

25 orduko prestakuntza egiaztatua

Ikastaroaren hizkuntza EUSKARA

IRAKASLEA



Ana Unzaga.
Berdintasun Agentea (EHU). Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeko Masterra (Deustuko Unibertsitatea).

Eman izena hemen

HELBURU OROKORRAK

- Sexu-genero sistemaren oinarrizko kontzeptuak ezagutu eta definitzea.
- Diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak identifikatzea eta egoera horien esanahiak eta aplikazioak ulertzea.
- Errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertzea.
- Egitura sexista horretatik eratorritako ideia, pentsamendu, jarrera eta portaeren alternatibak identifikatu eta proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-estrategia publikoak eta horien lan-proposamenak ezagutzea.
- Emakumeak ahalduntzeko kontzeptu nagusiak eta gaur egun egiten dituzten berrikuspenak eta ekarpenak ezagutzea.
- Berdintasun-politiken ibilbidea, bilakaera, aplikazio praktikoa eta berdintasunerako lanean planteatzen diren erronkak ezagutzea.
- Azterlan feministen eta generokoen ekarpena ulertzea.

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. MODULUA

Genero-desberdinkeria eragiten duten oinarrizko elementuak. Sexu-genero sistema eta generoaren sozializazioa. Genero-berdintasunaren kontzeptua.

2. MODULUA

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien diagnostikoa.

3. MODULUA

Berdintasun-politikak. Bilakaera eta kontzeptu nagusiak.

4. MODULUA

Aurrerapausoak eta erresistentziak berdintasunerako bidean. Emakumeen ahalduntze-prozesua.